

ELKARRIZKETAREN ALDE?



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya





Alter Profesional, la mejor cobertura alternativa

Opción alternativa a autónomos

PRESTACIONES POR INCAPACIDAD	Cobertura	Alter Profesional	Alter Profesional Plus
Incapacidad transitoria por enfermedad o accidente	Primeros 90 días fq 7d: 30€/día A partir del día 91: 46€/día	✓	✓
Incapacidad profesional parcial	15€/día	✓	✓
Pensión por incapacidad permanente absoluta	Hasta 1.200€/mes	✓	✓
Pensión vitalicia en caso de dependencia severa	500 / 1.000€/mes	✓	✓
Pensión vitalicia en caso de gran dependencia	1.000 / 2.000€/mes	✓	✓
Subsidio por maternidad o adopción	2.250€	✓	✓
Subsidio por paternidad	450€	✓	✓
Lactancia natural o artificial	675€	✓	✓
Cobertura por peligro vital de la madre o el feto	30€/día, 46€/día	✓	✓
Hospitalización por enfermedad o accidente	72€/día, Semicríticos: 144€/día, UCI: 216€/día	✓	✓
Hospitalización por patologías del embarazo y parto	72€/día, Semicríticos: 144€/día, UCI: 216€/día	✓	✓
PRESTACIONES POR FALLECIMIENTO			
Pensión por viudedad	Hasta 1.200€/mes	✓	✓
Pensión por orfandad	Hasta 600€/mes	✓	✓
Fallecimiento por cualquier causa	Capital consolidado	✓	✓
Servicio de entierro	3.500€	✓	✓
PRESTACIÓN DE JUBILACIÓN			
Pensión estimada de jubilación	Hasta 2.400€/mes	✓	✓
PRESTACIONES Y SERVICIOS SOCIALES			
Prestaciones sociales	Gratuito	✓	✓
Servicio de orientación social	Gratuito	✓	✓
Servicio de orientación nutricional	Gratuito	✓	✓
Servicios Residenciales (residencias, centros de día)	Acceso con descuentos	✓	✓
Servicio de Conservación de Células Madre	Acceso con descuentos	✓	✓
SUBSIDIOS MÉDICOS ECONÓMICOS			
Intervenciones quirúrgicas y pruebas de diagnóstico	Indemnización baremo	✓	✓
Indemnización por odontología	Indemnización baremo	✓	✓
Subsidio por gastos médicos	Indemnización baremo	✓	✓
Subsidio por ortopedia y prótesis	Indemnización baremo	✓	✓
Subsidio por óptica: gafas y lentes de contacto	Indemnización baremo	✓	✓

Abogado o Abogada de 23 años soltera y sin hijos

Alter Profesional Joven: 22,86€/mes
Alter Profesional Joven Plus: 75,34€/mes

Abogado o Abogada de 35 años casada (35 años) y 1 hijo de 2 años

Alter Profesional Joven: 37,30€/mes*
Alter Profesional Joven Plus: 92,41€/mes*

Abogado de 45 años

Alter Cuota: 215€/mes**

Abogada de 55 años

Alter Senior: 235€/mes**
Alter Senior Plus: 243,79€/mes**

* Las cuotas incluyen cobertura de viudedad con pensión de 400€/mes a favor del cónyuge o pareja, y pensión de Orfandad de 200€/mes para hijos o menores tutelados, menores de 25 años.

** Consúltenos las coberturas de los productos Alter Cuota y Alter Senior.

La cobertura es progresiva y se adapta a la situación o estado civil del abogado en cada momento

Más información:

www.altermutua.com
Tel 902 512 777

asesores@altermutua.com
y en nuestras redes sociales



Aldaketak, oro har, errealitatearen mugimenduak izaten dira, eta horiei esker, bilakatu egiten gara. Justizia Ministerioak arduradun berria du orain, eta hasteko, aurrekoarekin alderatuta abantaila handia du; izan ere, oso zaila da gaintzea aurrekoak erabakiak adostasunik gabe hartzeko zuen gogo egoskorra, elkarrizketaren bertuteen aurrean zuen mespretxua eta ministroaren dimisioa eragin zuen kudeaketan nagusi izan ziren beste kualitate asko.

Justizia ministro berriak interesa erakutsi du elkarrizketarekin eta adostasunarekin lan egiteko, eta erabakietan kontuan hartu nahi ditu sindikatuak, autonomia-erkidegoak, parlamentuetako taldeak eta mundu juridikoko protagonistak.

Elkarrizketa jakitearen trebetasuna da, eta horren arabera, diskurtso teoriko, unitario eta formalaren aurrean beste ezagutza indibidual, ez-jarraitu, hierarkikoki txikiagoak daude, eta horiei ere erreparatu behar zaie. Elkarrizketaren bidez, botereak, egitura bera dela-eta azpiratuta dituen kultura eta identitateak aitortu eta azalera ekarri nahi dira.

Boterea politikari dagokionez ez da ulertu behar Estatuarekin soil-soilik lotuta dagoen zerbaiten moduan. Harremanen sistema da, gizarte subjektuek eraikitzen dituzten gaitasun instituzional eta sinbolikoen multzoa.

Edozein esparrutan, elkarrizketa proposamenaren bidez pertsonen eta taldeen gaitasunak bultzatu nahi dira, bizitzen den egoera hobeto ulertzeko baldintzak sortzen dira, modu demokratiko eta solidarioan harremanak izateko, partaidetza espazioak sortzeko, alternatibak proposatzeko, erreklamatzeko, zalantzan jartzeko, salatzeo eta aurkaratzeko, baldintzek hala eskatzen baldin badute.

Lotura dialogikoan, boterea modu desbedinetan adierazten da; espazioen diseinuan eta banaketan, denboren erabileran, sinboloetan, jarretan, etab. Bilaketa bateratuaren esangura, gatazka bat ebatzen laguntzearen gogobetetzea, erantzun irudimentsua aurkitzea, ezbatatzen batean parte hartzea, horiek guztiek interesa bizirik mantentzen dute, eta horiei esker elkarrizketan oinarritutako harreman osasuntsuak ahalbidetzen dira.

Parte-hartzaileei adierazteko aukera gehiago emateari esker, haien aberastasuna, kultura agerian geratzen da. Modu berean, beste batzuekin komunikatzen ahalegintzen garenean, adierazi nahi duguna hobeto ulertzen dugu. Testuinguru horretan jakin behar dugu hitz egiteko eskubidea beti irabazten dela besteei entzuteak eta norbere buruarekin elkarrizketa izateak ematen duen isiltasun produktiboaren ostante.

Entzun dezagun, bada.

Los cambios son, en general, movimientos de la realidad que nos permiten evolucionar. El Ministerio de Justicia tiene ahora un nuevo responsable que, de inicio, posee una ventaja poderosa respecto al anterior, pues resultaría muy difícil que llegara a superar su terco afán por mantener decisiones sin consenso, el desprecio de las virtudes del diálogo y otras muchas cualidades que adornaron su gestión hasta precipitar una esperada dimisión.

El nuevo Ministro de Justicia, ha mostrado interés por trabajar con el diálogo y el consenso queriendo involucrar en las decisiones de su gestión a sindicatos, comunidades autónomas, grupos parlamentarios y protagonistas del mundo jurídico.

El diálogo es esa habilidad del saber, que establece que, frente a un discurso teórico, unitario, formal, existen otros conocimientos individuales, discontinuos, inferiores jerárquicamente, a los que hay que atender. El diálogo pretende reconocer y hacer participar a esas culturas e identidades que el poder, por su propia estructura, mantiene sumergidas.

El poder en relación con lo político, ya no se debe entender como algo relacionado únicamente con el Estado sino como un sistema de relaciones, un conjunto de capacidades institucionales y simbólicas que van construyendo los propios sujetos sociales.

La propuesta de diálogo en cualquier ámbito, está encaminada a potenciar las capacidades de las personas y los grupos, a crear condiciones para comprender mejor la situación que se está viviendo, para relacionarse de forma democrática y solidaria, para generar espacios de participación, para proponer alternativas, para reclamar, cuestionar, denunciar e impugnar cuando las condiciones lo requieran.

En la relación dialógica, el poder se expresa de diferentes maneras; en el diseño y distribución de los espacios, en el manejo de los tiempos, en símbolos, en actitudes, etc. El sentido de búsqueda conjunta, la satisfacción de contribuir a resolver un conflicto, de encontrar una respuesta imaginativa, de participar en un debate, son las cosas que mantienen vivo el interés, las que hacen posibles las saludables relaciones basadas en el diálogo.

Ampliar las posibilidades de expresión de los participantes hace posible que se manifieste su riqueza, su cultura, de igual de forma que, cuando tratamos de comunicar a otros, vamos comprendiendo mejor lo que intentamos expresar. Es en este contexto en el que debemos saber que el derecho a la palabra, se gana siempre tras el silencio productivo que supone escuchar al otro y dialogar con uno mismo.

Escuchemos pues.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**

**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea

Decano Carlos Fuentesnebro Zabala
Javier Bolado Zárraga
Ana Bermejo Arteagabeitia

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea

Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzárrega Zamalloa

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

My EMBASSY



PROMOCIÓN EXCLUSIVA COLEGIADOS
SÓLO EN NOVIEMBRE


TRAJE ARMANI+CAMISA ARMANI= 585 €

(pvp original 1.050 €)

Máximo Aguirre 11 Bilbao, 944 249 346
Bengoetxea 3 San Sebastián, 943 441 981
Colón de Larreategui 48 Bilbao, 944 255 351
www.myembassy.es

2014ko urria

06 BERRIAK



06

12 INFORMAZIOA

Fundazioen Legearen aurreproiektua

Online ikastaro aurreratua etxeko indarkeriaren inguruan

Justizia konponarazle baterantz

16 JARDUNALDIAK

Alderdi juridiko eta ekonomiko nabarmenak kaleratze kolektiboen inguruan eta barne eta kanpo malgutasuneko beste neurri batzuk




07

22 BAZKUNEKO LIBURUTEGIA



16

24 LEGEGINTZA BERRITASUNAK



28

26 KULTUR ERANSKINA

26

AUZIA EUSKARAZ

EUSKARA JURIDIKOA BATERATZEN

Orain arte justizia arloko eragileekin egindako bileretan behin eta berriz atera izan dira justizia arloko operadoreek euskarazko lexiko juridikoari buruz dituzten kezak: batetik, kontsulta iturrien sakabanaketa, eta bestetik, batasunik eza.

Biltze lanak dagoeneko aurreratuta

Hasteko, eta dagoeneko egindako lana aipatze aldera, euskarazko juridikoa itzulitako testuak toki bakar batean kontsultatzen aukera aipatu beharko genuke. Lan hori Justizia Sailak bultzatu du eta horren emaitza www.justizia.net webgunean dago ikusgai herritar denen eskura. Euskarazko itzulitako testu juridikoak bildu eta itzulpen memoria bat sortu da, gaztelaniazko eta euskarazko testu zatiekin bikoteak eginez –bikote bakoitzari itzulpen unitate deitzen diogu–, eta, hala, 300.000 itzulpen unitate baino gehiago ditu memoriak une honetan.



Memoria horretan, iturri desberdinetako testuak (legeak, epaiak eta epaitzak, abokatuaren formularioak, epaitegiaren ereduak...) txertatu dira eta euskaraz sortutako testu juridikoen bilduma handienetako bat dela esan dezakegu. 2013ko azaroan egin zen itzulpen unitateen azken karga masiboa –4.200 unitate sartu ziren guztira–, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), sailarekin sinatutako lankidetzahitzarmenari esker argitaratutako Legeak-Leyes izeneko 14 lexiko edo hiztegi kargatu ziren, hain zuzen. Bestalde, karga masibo horiez gain, epaitegiaren langileek egunean-egunean sortzen dituzten testu berrien eta horien itzulpenekin memoria elikatuz jarraitzen dugu.

Memoria horretan, iturri desberdinetako testuak (legeak, epaiak eta epaitzak, abokatuaren formularioak, epaitegiaren ereduak...) txertatu dira eta euskaraz sortutako testu juridikoen bilduma handienetako bat dela esan dezakegu. 2013ko azaroan egin zen itzulpen unitateen azken karga masiboa –4.200 unitate sartu ziren guztira–, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), sailarekin sinatutako lankidetzahitzarmenari esker argitaratutako Legeak-Leyes izeneko 14 lexiko edo hiztegi kargatu ziren, hain zuzen. Bestalde, karga masibo horiez gain, epaitegiaren langileek egunean-egunean sortzen dituzten testu berrien eta horien itzulpenekin memoria elikatuz jarraitzen dugu.

ABOKATUEN EREDUAK: LAN-ARLOKOAK EGUNERATUTA

Urte hasieratik abokatu eta prokuradoreen ereduak lege eta hizkuntza aldetik eguneratzen dihardugu.

Lan-arloko idazkiekin amaitu dugu eta zuen esku jarri ditugu e-toolbarrean zein www.justizia.net webean.

Hemen duzue arlo honetako ereduaren zerrenda:

Lan Arloa: Idazki-ereduen zerrenda

01. Ikuskaritzari salaketa idazkia
02. Diru-kopuru bati buruzko adiskidetz-ekitaldia
03. Diru-kopuru bati buruzko demanda
04. Soldata Bermatzeko Funtsa epaiketara deitzea
05. Konponketa
06. Diru-kopuru bati buruzko epaia betearaztea
07. Kaleratzeari buruzko adiskidetz-ekitaldia
08. Kaleratzeari buruzko demanda
09. Kaleratze-epaia betearaztea
10. Lan-baldintzen aldaketari buruzko demanda
11. Oporrak
12. Aurretziazko erreklamazioa

13. Prestazioari buruzko demanda
14. Metatze-eskaera
15. Argitzeko errekurtsua
16. Demandan atzera egitea
17. Berraztertze-errekurtsua
18. Berraztertze-errekurtsua aurkaratzea
19. Erregutze-errekurtsua iragartzea
20. Erregutze-errekurtsua formalizatzea
21. Erregutze-errekurtsua aurkaratzea
22. Auzitegi Gorenaren aurrean pertsonatzea
23. Banakatze-eskaera
24. Ziurtagiri-eskaera
25. Epaia ziurtagiria kasazio-errekurtsorako

OHARRA: Eredu baten klik egiterakoan dokumentua ireki edo gordetzeko aukera ematen du. Botoien eta makroen funtzionamendua bermatzeko "GUARDAR" aukeratzea komeni da. Norberaren ordenagailuan kopiatuz gero aukera guztiek ondo funtzionatzen dute.

ELENA LAKARI ELKARRIZKETA

Hilaren 22an Elena Lakaren bulegora joan ginen e-Toolbarra instalatzera. Aurtengo apirilean Euskaltzaleen Topaguneko presidentea izendatu dute abokatu eibartarra. Aukera aprobetxatu genuen galdera batzuk egiteko:



1. Zer moduzko esperientzia orain arte Topaguneko presidentea gisa?

Orain arte ona. Pultsua hartzen ari naiz, kontaktuak egiten gizarte eragileekin, alderdi politikoeekin, Euskalgintzako eragileekin, Topaguneko kideekin... Gustura nago, Topaguneko taldea izugarria da, bai lantaldea bai zuzendaritza, ilusioa badugu eta lan egiteko gogoz gaude.

2. Abokatu zara ogibidez, zer presentzia du euskarak zure eguneroko lanean?

Dexentekoa. Bezeroekiko harremanetan gehienbat. Nik lehen hitza beti egiten dut euskaraz, eta gero bezeroak erabakitzen du bi hizkuntzetatik zein erabili nahi duen.

Epaitegiaren duela gutxi hasi gara langileekin erabiltzen. Epaille, fiskalekin eta abarrekin beste kontu bat da. Idatzizko harremanei dagokienez, dokumentuak elebidun jasotzen ditugu epaitegitik.

Euskarazko prozedurak itzulpenean oinarritzen dira. Epaiak zein entzunaldietan interpreteak egon ohi dira, eta horrek trakestu egiten du kontua. Gertatu izan zait epaiketetan guztiak izatea euskaldunak, epailea izan ezik, eta dena gaztelaniaz egin behar izatea. Gainera bada zenbait pertsona, adinekoak esaterako, ez direnak ongi moldatzen gaztelaniaz, nahiz eta ez dizuten horrelakorik onartuko. Gernikan izaten ditugu batik batik horrelako kasuak. Iruditzen zait kasu horietan bigarren mailako herritarren tratua jasotzen dutela. *(elkarrizketa osoa auzia euskaraz-en boletinean)* ●

KONKURTSOKO ADMINISTRATZAILEEN LANBIDE-ELKARTE BERRIA (ASPAC)

Pasa den irailaren 25ean Konkurtsoko Administrazioaren Lanbide-Elkartea (Asociación Profesional de Administradores Concursales-ASPAC) eratu zen; horretarako, Madrilen egindako asanbladan sektoreko 100 profesional baino gehiago batu ziren.

Elkartearen xedeak aho batez onartutako estatutuetan ezarrita daude. Helburuen artean hauek nabarmentzen dira: “el desarrollo y divulgación de los función de la administración concursal” eta “colaborar y gestionar ante la Administración, el poder legislativo, el ejecutivo, el legislativo, cualquier iniciativa en relación a la mejora y defensa de las funciones propias de la administración concursal”, betiere hartzekodunen interesa lanbidearen azken xedea dela.

Estatutuen arabera, ASPAC elkarte berriaren lanean eginkizun hau bete beharko da: “potenciar cuantas actividades se estimen oportunas encaminadas a la formación de los administradores”; bestetik, debekatuta dago: “el patrocinio u organización de cursos, congresos, foros u eventos en los que participen con retribución jueces mercantiles y órgano alguno encargado de designar administradores concursales...”. Era berean, bi ideai hauek agertzen dira: “el control de la deontología profesional” eta “el ejercicio de la representación de los administradores concursales”.

Horrenbestez, ASPAC Asociación Nacional de Administradores Concursales (ANACO) delako erakundetik sortutako elkarte berria dugu, izan ere, azken hori lanbidearen egungo inguruabar berrietara egokitu behar zen, elkarte berriaren sortzaileen ustez. ●

HOMENAJE A D. JAVIER DE OLEAGA

Zuzenbidearen Euskal Akademiak Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren laguntzarekin Javier de Oleaga jaunaren omenezko ekitaldi bat antolatu zuen pasa den irailaren 29an. Javier de Oleaga Zuzenbidearen Euskal Akademiaren idazkaria, beste hainbat erakunderen partaide eta foru zuzenbidearen aldeko legelaria izan zen. Ekitaldian JADO izeneko aldizkariaren 24. zenbakia aurkeztu zen, izan ere, zenbaki hori Oleaga omentzeko prestatu da.

Omenaldiaren hasieran Adrian Celaya Zuzenbidearen Euskal Akademiaren presidentek hitz egin zuen. Javier de Oleaga lagun eta langile nekazekin modura gogoratu zuen. Adrian Bilbora etorri zenean, bulegoan hasi zen lehenengo lankidea, hain zuzen, Jesús de Oleaga –Javierren anaia– izan zen. Celayak esan zuenez, Jesusen bitartez Zuzenbidea maite zuen familia ezagutu zuen.

Adrian Celayaren ondoren, Nazario de Oleaga aritu zen, Oleaga sendiaren ordezkari modura. Zortzi seme-alabek Javierren balore nagusiak –zintzotasuna eta lanerako prestutasuna (betiere kolektibo osoari begira)– jaso zituztela aipatu zuen. Nazariok Begoña amaren goraipamena egin zuen; eskerrak eman zizkion Javierren bizitza zoriontsua eta beteaz izatea ahalbideratu baitzuen.

Hirugarrenik, Txemi Gorostizak hitz egin zuen, Bazkunaren Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Ikerketa Taldearen izenean. Taldea orain dela hamabost urte sortu zen eta betidanik Javier partaide sutsua izan zen. Bete zeukan zerbait esateko, belaunaldien arteko errelebuia ziurtatuz.

Itziar Monasteriok aitortu zuenez, 1988. urtean elkar ezagutu zuten, Euskalerraren Adiskideen Elkartearen sartu zirenean. Javier eta Jesús anaia “erakunde” bihurtu ziren. Itziarren hitzetan, Javier foru zuzenbidearen aldeko borrokalari nekazekina zen eta ikerkuntza lanen bultzatzaile aspergaitza.

Azkenik, Andres Urrutia Zuzenbidearen Euskal Akademiaren presidenteordeak hitz egin zuen. Javierrek ezagunak lagun bihurtzen zituen, Urrutiak esan zuenez. Omenaldia oso garrantzitsua da etxekoentzako, eta baita ere lankideentzako. Foru Zuzenbidearen esparruan ezinbesteko aditua izan da Javier; oraindik ere, arlo horretako arazoak jorraztera biltzen direnean, Javierrekin gogoratzen dira eta zer esango zuen pentsatzen dute. ●



AUZITEGI GORENAREN DOKTRINA LEGELARIEN ORDAINSARIEN INGURUKO ERREKLAMAZIOEN PRESKIPZIOAZ

Pasa den ekainaren 13an Auzitegi Gorenaren Arlo Zibileko Salak 338/2014 epaia eman zuen. Sententzia horretan legelariaren ordainsariaren preskripzioaz aritzen da, hasiera unea zein den zehaztuz.

Auzitegi Gorenaren aburuz, zerbitzu batzuk bezero bati ematen zaizkionea (nahiz eta zerbitzuok euren artean loturik ez egon), “*dies a quo*” modura hau hartuko da: legelariaren zerbitzuen multzoa bukaera dakarren eguna.

Arrazoi hau erabakigarria izan da epaian: “*sería anormal que el abogado reclamase el pago por cada una de tantas actuaciones judiciales como realice en un pleito en defensa de su cliente*”.

Beraz, hainbat auzitan bezero baten aholkularitza badaramagu, nahiz eta auzi horien artean loturirik ez egon, preskripzioaren hasiera unea zehazteko azken jarduna kontuan hartuko da; beraz, ez da beharrezkoa izango ordainsariak auziz auzi eskatzea. ●

JUSTIZIA ARLOAN IZANGO DIREN BERRIKUNTZEN AURREAN ELKARRIZKETAREN ETA ADOSTASUNAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU CATALÁ MINISTROAK

Eragile juridiko nahiz parlamentuko talde guztiekin bilduko da, gure epaitegi eta auzitegiek dituzten beharrezane buruz eztabaidatzeko

Sektorekako eztabaida-mahai bat antolatuko du autonomia erkidegoekin hitz egiteko, baita bigarren bat ere, sindikala, langileen ordezkariekin jarduteko

Ustelkeriaren aurkako borrokan eskura dauden baliabide guztiak baliatuko dira, eta zigor prozedura aldatu, aurrekoak bezalako kasuak arintzeko

Tasa judizialak aztertu eta berrikusiko dira, hobetze aldera

Alkoholak eragindako trafiko-delituen tramitazioa arinduko da

282 unitate judizial eta fiskaltzarako 46 plaza berri sortuko direla iragarri du ministroak

Egungo mugape judizial bera mantenduko da, epaitegi-barrutiz osatutakoa

Pasa den urriaren 15ean, Rafael Catalá justizia ministroak sindikatuekin, autonomia erkidegoekin, parlamentuko taldeekin eta eragile juridiko guztiekin elkarrizketa eta adostasuna sustatzearen alde egin zuen Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordearen aurrean, Administrazio Justiziak "herritarrei zerbitzu egokia emateko" beharrezkoak dituen berrikuntzei aurre egiteko.

Hori horrela, honakoak iragarri zituen: eztabaida-mahaia sindikatuekin, sektorekako konferentzia autonomia erkidegoekin, eta bilerak parlamentuko taldeekin, aipaturiko elkarrizketarako borondatea egiazkoa izatera iritsi dadin.

Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordearen aurrean azalpenak emateko deialdia egin ostean, ministroak berak eman zuen datozen hilabetei begira Ministerioak esku artean dituen proiektu nagusien berri.

USTELKERIAREN KONTRAKO BORROKA

Gai honen inguruan, zera esan zuen: "Gobernuaren politikaren baitan dago ustelkeriaren aurkako borrokan ahalik eta baliabide guztiak erabiltzea"; horregatik, Justizia Ministerioak epaitegi-taldeen organoak indartzeari buruz egindako eskabide guzti-guztiei erantzun die, eta 10,4 milioi euro gastatu dira, zentzu horretan. Laburbilduz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egindako indartze-eskabideei %100ean erantzun zaie zigor arloan eta Auzitegi Nazionalen; gauza bera Fiskaltzak egindako eskabideekin.

Hala ere, onartu zuenez, "herritarrak nazkatuta daude horrenbeste makro-prozesuen aurrean; izan ere, badirudi makina bat urtez luzatu diren prozesuontzat ez dela sekula epairik iristen, eta, iristean ere, justizia berankor horrek herritarrak



guztiz asebetetzen ez dituela esan liteke". Hori saihesteko, hau da iragarri zuena: "zigor prozedura berrituko da, arazo korapilotsuen instrukzioak bere bidea jarrai dezan, piezak elkarren segidan lotzeko beharrik gabe; modu horretara, inputatuek arrazoizko epe batean eman ahalko dituzte azalpenak epailearen aurrean".

ALKOHOLAREN ERAGINPEAN GIDATZEAGATIKO DELITUAK

Aurreikusitako beste prozedura bat, alkoholaren eraginpean gidatzeagatiko delituen epaiketei dagokiena da. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren txostenak dioenez, izan ere, Espainian emandako kondena-epaien %50ak arrazoi hori dute oinarri. Berrikuntza horren ondorioz, arau-hausleari zigor moduan isunen bat edota gidabaimena kentzen zaionean, epaiketa saihestu daiteke; horretarako, baina, inputatutak onartu egin beharko du, nahitaez, fiskaltzak korreoz igorritako akusazio-proposamena.

Horrek asko arinduko du epaileen, fiskalen, idazkari judizialen eta funtzionarioen lan-karga, eta, ondorioz, herritarren artean segurtasun-eza sorrarazten duten beste delituetan jarri ahalko dute euren arreta guztia.

ANTOLAKETA

Epai-mugapeari dagokionez, egungo eredu eta egitura eustearen alde azaldu zen ministroa, hau da, "Epaitegi-barrutiak mantentzea, Justiziaren zerbitzu publikoa ematea ahalbideratzen duten elementu gisa".

Horrek ez du esan nahi, ordea, beharrezkoa izanez gero hobekuntzarik txertatuko ez denik, epaitegien lurralde-banaketa eragin-kortasunez funtziona dezan, herritarrei erantzun azkarra

emateari dagokionez. Hori horrela, lan-kargak nola arindu aztertuko da, Justizia Auzitegi Nagusietako Gobernu areto eta epaile dekanoen bidez, eta BJKNrekin lankidetzan.

EPAILEEN ETA FISKALEN KARRERA

Catalá ministroak azpimarratu zuenez, Gobernuak betidanik egin izan du karrera judizialaren profesionalizatzen alde; halaber, epaileen ordezkate-erregimena idazkari judiziale-tara ere hedatuko da.

Profesionalizatzeko horren harira, 282 unitate jurisdikzional berri sortuko dira. Modu horretara ebatziko da orain arteko disfuntzioa, hau da, 2011. urteaz geroztik epaileen lantaldean aldaketarik egon ez arren, behin eta berriz oposaketak deitu izana. Ondorioz, 445 epaile daude destino baten zain, nahiz eta hutsik egon litezkeen lanpostuak 169 baino ez izan.

Halako zerbait gertatzen zen fiskalekin ere eta, ondorioz, 146 plaza berri sortuko dira. Gainera, hilabete honetan bertan, 50 fiskal oposaketan egingo dira; eta fiskal berri horiek datorren urtean hasiko dira lanean.

Justizia Administrazioan diharduten funtzionario eta profesionalei dagokienez, ministroak barne promozioa bermatu die, bai eta "karrerako funtzionario berriak hautatu eta prestatzeko eredu malguagoa" ere.



AURREKONTUAK

Catalá ministroak gogora arazi zuen, aurtengo legegintzaldian, eta lehendabiziko aldiz, igoera bat izan dela Justizia Ministeriora atxikitako programa eta erakunde guztietan, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta betiere (1.599,49 milioi euro). Horrek esan nahi du, %1,3ko igoera horrekin funtsezkoak diren partidak indartuko direla, hala nola, doako justiziari dagokiona, genero-indarkeriarena edota biktimei laguntza ematea helburu duena.

Gehikuntza nabarmenena izango duen kapitulua inbertsioei dagokiena da: 16 milioi euro gehiago bideratuko dira bertara, 77,5 milioi guztira. Horietatik guztietatik 59 milioi baino gehiago Justizia Administrazioa teknologikoki modernizatzen izango dira, eta gainerako 18 milioiak, berriz, Azpiegitura eta Ekipamenduen Plana berritzeko.

Ministroak iragarri zuenez, tasen ondoriozko diru-sarrerei dagozkien datuak aztertu, eta tasa horiek herritar nahiz enpresetan izan duten eragin erreala ezagutu ostean, "eragile juridiko eta parlamentuko talde guztiekin bilduko da, euren ikuspuntua ezagutzeko eta, horrela, legearen aplikazioan hobekuntzarik egin daitekeen ala ez aztertzeko". Azterketa horren beharizana justifikatzeko, esan zuen, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako azken datuen arabera, tasarik gabeko auziak direla gehien ugartu direla (Zigor eta Gizarte arloa), Zibil arlokoak eta Administrazioarekiko auzibidekoak behera egin duten bitartean.

Doako justiziari dagokionez, esan du, Ministerioaren eskumeneko erkidegoetan aurrekontua %2,3 handitu dela aurreko bi urteekin alderatuta, 34,9 milioi euro arte, alegia. Doako justizia horren onuradunen finantzaketa aurrekontuetan jasoko da zuzenean; ondoren, dagokion hitzarmenen bidez, autonomia erkidegoek bermatuko dute zerbitzua.

ERREGISTRO ZIBILA

Catalá ministroak beste hau ere gogora arazi zuen: erregistratzaileak direla Erregistro Zibila kudeatzeko arduradunak. Hala ere, iragarri zuen, berrikusi egingo duela eragile juridiko horiei dagozkien elkargo profesionalekin hasiera batean hitzarturiko elkarrizketa-printzipioa, prozesu hori burutuko duen erakunderik sortu gabe, alegia.

Hori bideratzeko, bitariko batzorde bat eratzeko konpromisoa hartu zuen, Justizia Ministerioaren eta Erregistratzaileen Elkargoaren artean. Batzorde horren egitekoa izango da, egun eskura dauden baliabideekin zerbitzua ahalik eta gehien hobetzea, honakoak bermatuz: herritarrentzako doakotasuna, erregistroko datuen gaineko Estatuaren titulartasuna, eta datu horien erabateko babesa. ●

ERRUGABETASUN-PRESUNTZIOA URRATZEARI BURUZ “JUECES PARA LA DEMOCRACIA”-K EGINDAKO KOMUNIKATUA

Beste behin, gure herrialdean errugabetasun-presuntziarik eza agerian utzi duten zenbait gertaera bizi izan ditugu azken asteetan. Horren aurrean, *Jueces para la Democracia* elkartetik oinarritzkoa den zerbaiteko gogoratu nahi dugu: errugabetasun-presuntzioa funtsezko eskubidea dela, alegia. Horrek esan nahi du, zigor arloko arau-hauste baten aurrean inor ere ezin daitekeela erruduntzat jo, horri buruz epai irmo bat egon arte. Zuzenbidezko Estatuan funtsezkoa den printzipioa da, hau da, arlo judizialean errespetatu beharrekoa, bai eta eremu instituzionalean eta gizarte osoan ere.

Malagan ustez gertaturiko sexu-eraso baten aurrean, informazio eta iritzi ugari zabaldu ziren, xehetasun handiz gainera, non inputatuei jadanik zigorra egotzen zitzaten, inolako epairik egon ez arren; hau da, errugabetasun-presuntzioa urratuz. Horren ostean, salaketa faltsua zela eta salatu zuten hasierako salatzailea. Horren ondorioz, baieztapen ugari etorri ziren, baita kargu publiko esanguratsuen aldetik ere, esanez, kasu horietan guztietan emakumeek egindako salaketak faltsuak izan ohi direla, datu ofizialen arabera aurreko hori erabat gezurra izan arren. Gogoratu beharra daukagu, zentzu komunaren aurkako baieztapenen aurrean, kasu zehatza eta kasu horri lotutako frogak aztertzea komeni dela, errugabetasun-presuntzioaren funtsezko eskubideak eta pertsona guztioi dagozkigun bermeak errespetatuz, betiere.

Ciudad Lineal-en gertaturiko egintzei erantzuna emanez, ustezko pederasta bat atxilotu dute oraintsu, eta horrekin batera, berriro urratu da errugabetasun-presuntzioa, bai

erakundeen aldetik, bai gizartearen aldetik. Gertaera oso larriak dira, bai; eta gizartearen sortu den ardura, berriz, izugarria. Horregatik, Segurtasun Indarrek ahalegin berezia egin dute hori guztia argitzearen alde. Aurreko horrek, ordea, ez du justifikatzen Barne Ministerioak datu eta irudiak zabaldu izana, pertsona horren erruduntasun ideia aragoitu besterik ez bita egiten modu horretara. Poliziaren erreportajeen bidez, atxilotutako pertsona jendaurrean erakutsi da, benetako erruduna delakoan. Barne Ministerioak hasiera-hasieratik atera nahi izan dio errenta atxilotuta horri; eta antzeppen horretan, muga ugari gainditu ditu, prozesuaren bermeei dagokionez. Era berean, makina bat izan dira inputatuari erantzukizun kriminala egotzi dioten komunikabideak, prozesuaren oinarritzko arauak errespetatu gabe, eta gure sistema judizialaren antolaketan morbo hutsera mugatuz. Horrek guztiak eragina izan dezake instrukzioko diligentzietan, hala nola, identifikazio-saioetan. Eta ez da bidezkoa aurreko hori herritarren informazio-eskubidearen bidez justifikatzea, herritarren nahiz euren familien segurtasunean eragin dezakeelakoan.

Jueces para la Democracia elkartetik ardura adierazi nahi dugu, errugabetasun-presuntzioaren funtsezko eskubidea geroz eta gehiago urratzen ari delako. Erantzukizuneko jokatzeke deia egin nahi diegu instituzioei, komunikabideei, eta baita gizarte osoari ere, gure Zuzenbidezko Estatuaren bermeak eta oinarritzko printzipioak errespetatu daitezela. ●

EUROPAKO KONTSEILUAK ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN KONTSEILU NAGUSIA SARITU DU DOAKO JUSTIZIAREN ESPEDIENTE ELEKTRONIKOAGATIK

Europako Kontseiluak Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari ‘Justziaren Kristalezko Balantza’ saria eman dio Doako Justiziaren Espediente Elektronikoagatik.

Doako Justiziaren Espediente Elektronikoak abantaila hauek ditu: Doako Justizia eskubidearen eskakizunak betetzen direla frogatzeko behar diren dokumentuak modu automatikoki biltzen ditu; kudeaketan ziurtasuna eta gardentasuna egoteko laguntzen du; administrazio espedientearen errakuntzak gutxitzen ditu; kostua gutxitzen du; eta tramitazio epeak berrogei egunetan laburtzen dira.

Sistema Espainiako Abokatutzaren Teknologia Azpiegiturak –RedAbogacia– garatu du eta modu telematikoki eta erraz erraz lotzen ditu 70 abokatu elkargo baino gehiago eta, besteak beste, honako hauek: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta horren Diruzaintza Nagusia, Katastrorako

Zuzendaritza Nagusia eta Enplegu Institutu Nazionala. Zerbitzu horrekin abokatutzak “Administrazio Elektronikoa” izeneko arloan duen lana berrindartzen du; horrenbestez, abokatutzak ofizioko txandaren bidez –42.000 legegari, 365 egunez eta 24 orduz– herritarrekiko duen konpromisoa berresten du.

Doako Justiziaren Espediente Elektronikoa gero eta gehiago erabiltzen da, 2013an 524.487 herritarrek erabili zuten tresna teknologikoa, aurreko urtean baino %41,12 gehiago. 2012. urtean 371.673 erabiltzaile izan ziren; 2011an, berriz, 250.115 doako justiziako eskatzaile egon ziren.

Gure Bazkunean zerbitzua 2013an hasi zen martxan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun Sailarekin sinatutako hitzarmenari esker. ●

URTE JUDIZIALAREN HASIERA EUSKADIN

Pasa den urriaren 22an urte judizialaren hasiera ekitaldia egin zen; bertan gonbidatu hauek izan ziren: Iñigo Urkullu Lehendakaria, Juan Luis Ibarra –Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea–, Juan Calparsoro –Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia–, gure Bazkuneko Batzaren kideak, eta Euskadiko beste agintari zibil eta militar batzuk.

Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek Euskadiko Justizia Jauregietan informatika arloan egin den hobekuntza azpimarratu zuen, izan ere, bulego judizial berriaren atarian gaude.

Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiaren arabera, hobeto erantzun behar zaie “giza eskubideen urraketen salaketei, hain zuzen, torturen inguruan egindakoei”; horrela, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiaren kontra oraintsu egin duen kondena “lotsagarria” berriro ez gertatzea lortuko zen; bestetik, justizia administrazioan gertatzen den euskararen erabilera eskasa gogorazi zuen.

Azkenik, Lehendakariak hitz egin zuen. Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek justizia administrazioari informatika arloan aipatutako beharrezko hobekuntzak direla eta, Lehendakariak hau esan zuen: “Erronka hori euskal administrazioan gureganatu egin dugu. Jakin badakigu jauzi kualitatiboa egin behar dugula. Hurrengo hamar hilabeteak beteko dituen inbertsio programa hitzartuta dugu”.

Lehendakariak esan zuenez, egungo konstituzioaren arabera “posible” da botere judizialaren eredu berria, hain zuzen, Euskadiko erakunde sistemaren barruan txerta-



tzeko. Gainera, espetxe politika berria eskatu zuen, eta bakea eta elkarbizitza lortzeko bidean epaile eta fiskalei “protagonista” izatea eskatu zien.

Juan Luis Ibarren, Juan Calparsororen eta Iñigo Urkulluren ostean, gure Bazkuneko abesbatza aritu zuen: bertaratuen gozamenerako abesti bi kantatu zituen. ●

FUNDAZIOEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Aurreko zenbakian eman genizuen Fundazioei buruzko Legean izango diren aldaketen berri.

Ministroen Kontseiluak Fundazioei buruzko Legearen Aurreproiektua onartu zuen pasa den abuztuaren 29an; hau da, indarrean dagoen abenduaren 26ko 50/2002 Legea ordeztuko duena. Jarraian, aurreproiektu horrek jasotzen dituen berrikuntza aipagarrienak laburbilduko dizkizuegu.

Aurreproiektu berriak 44 artikulua ditu, 10 kapitulutan banatuta; horren bidez, **fundazioen eratze-prozesua bermatzen da, Fundazioen Babesletzak Estatuko Administrazio Orokorren esparruan eskainiko duen aholkularitzaren bidez**. Hori horrela, orain arteko dispersio-egoera desagertu egingo da; izan ere, zalantza ugari sortu ohi da, fundazio bakoitzaren helburuen arabera babesletza batera edo bestera jo beharra dagoelako.

Fundazio bat eratu nahi duen interesdunak, beraz, Babesletzara jo, eta, txosten bat eskatuko du, fundazio gori egokia, nahikoa eta bideragarria den ala ez jakiteko. Babesletzak **hiru hilabeteko epea izango du, gehienez**, txosten hori egiteko. Notarioak fundazioa eratu ostean, **Justizia Ministerioaren mende dagoen Fundazioen Erregistro bakarrean dagokion inskripzioa egitekoa eskaera egingo du, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez**.

Fundazioen Erregistro hori publikoa izango da, eta bertako edukia, berriz, zuzena eta baliozkoa. **Erregistroan jasoko dira espainiar lurraldean jarduten duten fundazio guztiei buruzko egintza garrantzitsuak**. Horri esker, publikotasun nahiz gardentasun beharrianak beteko dira, jaso diren diru-laguntza eta onura fiskalen erabilera are gehiago kontrolatuz. Erregistro hori Merkataritzako Erregistroaren parekoa izango da.

Aurreproiektuak indartu egiten ditu hornidurari buruzko baldintzak eta, kontrara, ezabatu jarraikako ordainketa-aukerak; **ondo gobernatzeko printzipioak arautzen ditu, patronatuko kideen jarduerak arautuz** eta, azkenik, ondo gobernatzeko kodeak onartu eta hedatzeko beharra ere sustatzen du. **Webgunean argitaratuko dira daturik esan-**

guratsuenak: jarduerari buruzkoak, urteko kontuak edota patronatuaren zordunketak, hala nola, jasotako diru-laguntza nahiz laguntza publikoak.

Iruzurrari aurre egin eta fundazioen helburuekin bat ez datozen jarduerak saihesteko, eta fundazioen eraketak bere baitan dituen sare ekonomikoak sortzeko, arau berriak honakoak **berreztatu**: alde batetik, **berreztatu jarduerak**, hau da, **fundazioaren helburuekin bat datozenak**; eta **merkatutzeko jarduerak, fundazioa finantzatzeko erabiltzen direnak**.

Legezko betekizunekin bat datozen fundazioek soilik jaso ahalko dituzte sarritan irabazi asmorik gabeko erakundeek jaso ohi dituzten diru-laguntzak eta onura fiskalak.

Zentzu horretan, askoz argiago geratzen da 2002ko legeak ezarritako betebeharra, hau da, **fundazioak lorturiko etekinaren %70 gutxienez fundazioen helburuetara bideratzea**. Era berean, fundazioarekin loturiko pertsona edo erakundeen kontratazioa ere arautu da.

Zehapen-arabide bat ere gehitu da; Babesletza arduratu da hori aplikatzeaz. **Ugazabak eta patronatuko idazkaria** izango dira subjektu erantzuleak, baldin eta arau-hauste jakin horri banakako erantzukizuna egotzi badakioke. Arauhauste horiek **arinak, larriak eta oso larriak** izan ahalko dira. Aplikatu daitezkeen zigorrak dagokienez, aukera oso zabala da: 1.000 eta 30.000 euro arteko isunak, ugazaba edota gobernu-organoan dagokion kargua galtzea, eta bost eta hamar urte bitartean kargu horien gaineko gaitasungabetzea.

Azkenetako arrazoiei dagokienez, gaur egungo araudiak ezartzen dituen arrazoiei berri bat gehitu zaie, hau da, kontuak urtero eta jarduera-planak jarraikako hiru ekitalditan aurkezteko betebeharra ez betetzea. Horren bidez lortu nahi dena: inskribatuta egon arren inolako jarduerarik ez duten fundazioen portzentaje esanguratsua murriztea.

Hori da, aurre-proiektua eskuan, esan dezakeguna; ikusiko dugu ea azkenean onartzen duten ala ez, eta nola. ●

GENERO INDARKERIARI BURUZKO ON LINE IKASTARO AURRERATUA

Aurten ere GENERO INDARKERIARI buruzko ikastaro aurreratua egingo da; ikastaro hori txandan dauden legeriarientzat antolatzen da, izan ere, txandan egoteko beharrezkoa da kasuz kasuko ikastaroa egitea; dena den, aurten badago berritasun handi bat: ikastaroa lehenengo aldiz online izango da, Bazkuneko extranet delakoaren bidez.

Ikastaroan zehar hainbat material jorratuko dira. Ikasleek material horiek landu beharko dituzte. Ondoren, ikasleek galdetegi bat bete beharko dute. Azterketa hori gainditzea nahitaezkoa izango da txandan jarraitzeko.

Ikastaroaren atarian sartuz gero, eduki teorikoak, material osagarriak (epaiak eta legeria) eta bete beharreko galdetegi aurkituko dituzu. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra du.

Galdetegi bete eta gero, erantzun egokien kopurua ikusiko duzu. Galdetegi gaindituztat jotzeko beharrezkoa

izango da erantzunen erdia asmatzea. Posible izango da galdetegi behin eta berriro betetzea. Plataformak erantzun sorta onena gordeko du.

Epe garrantzitsu bi kontuan hartu behar dituzu. Batetik, izena emateko epea azaroaren 14an bukatuko da. Horrenbestez, bazkunak egiaztatuko du txandan dauden legeriariek ikastaroan izena eman duten. Bestetik, ikastaroa amaitzeko/gainditzeko (galdetegi gainditzeko) epea 2014ko abenduaren 31an bukatuko da. Epe horretan ez bada ikastaroa gainditzen, legelaria txandatik kanpo geratuko da.

Esan bezala, online ikastaroen arloan Bazkunak egiten duen lehenengo saiakera dugu hau. Beraz, gerta liteke arazoren bat edo beste sortzea. Dena dela, ikasleak malgutasun gehiagorekin jokatu ahal izango du, hain zuzen, lanari eta nahitaezko prestakuntzari eskainitako orduak banatzeko. Ondorioen berri emango dizuegu. ●

CORRECCIÓN VISUAL POR LÁSER

Dr. Pablo Artamendi
Especialista en oftalmología
Clínica Baviera País Vasco

María Reina
Paciente de Clínica Baviera

SIN GAFAS
NI LENTILLAS
TODO SE
VE MEJOR

SÓLO
HASTA EL 31
DICIEMBRE

PROMOCIÓN EXCLUSIVA

para colegiados y familiares directos del
Cº ABOGADOS BIZKAIA

795 €/ojo

+ Consulta preoperatoria **GRATUITA**

Tarifa General: 895€/ojo. Tarifas válidas para el tratamiento láser. Excepto Lasik/Lasek Z-100. Promoción válida desde 01/10/14 hasta 31/12/14. Consulta valorada en 55€. No acumulable a otras ofertas. R.P.S. Nº 3/11.

¡NO OLVIDES
PRESENTAR en clínica
tu **ACREDITACIÓN**
de **COLEGIADO!**

Bilbao. Calle Lehendakari Leizaola, 5 posterior • Calle Ibañez de Bilbao, 9 • **946 61 19 40**

Dr. Andoni Arias Fernández, Dr. Andoni Junkera Landeta, Dr. Julio Ortega Usobiaga y Dra. Begoña De Damas. Todos especialistas en Oftalmología y Cirugía Oftálmica. R.P.S. Nº 3/11.

TARIFAS Y PROMOCIÓN VÁLIDAS SÓLO EN EL PAÍS VASCO

SOLICITA YA TU 1ª CONSULTA PREOPERATORIA **902 130 100 / clinicabaviera.com**

CLÍNICA BAVIERA
INSTITUTO OFTALMOLÓGICO EUROPEO

“JUSTIZIA LEHENERATZAILE BATEN BIDEAN”: ETORKIZUNA ALA UTOPIA?”

JUSTIZIA LEHENERATZAILEARI ETA ZIGOR-ARLOKO BITARTEKARITZARI BURUZKO JARDUNALDIA

Los plenos no jurisdiccionales del Tribunal Supremo, Martínez Francisco, Nieves Tirant lo Blanch (Valencia)

Esquemas procesales civiles, penales y concursales: adaptados a las últimas reformas de los procesos civiles y de la ley concursal, Carrillo Olano, German; (Otros) La Ley (Madrid)

La valoración de la prueba en el proceso civil, Abel Lluch, Xabier La Ley (Madrid)

Manual de actuaciones en sala: técnicas prácticas del proceso penal, Pinto Palacios, Fernando; Pujol Capilla, Purificación La Ley (Madrid)

Los procedimientos monitorios civiles en el derecho español, Bonet Navarro, José Aranzadi (Cizur Menor)

FILOSOFIA ETA DEONTOLOGIA

La moderna configuración de la doctrina del abuso del derecho, Cuadrado Pérez, Carlos Aranzadi (Cizur Menor)

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Resolución de Disputas en Línea (RDL): las claves de la mediación electrónica, Alzate Saez de Heredia, Ramón; Vazquez de Castro, Eduardo Reus (Madrid)

La prueba electrónica ante los Tribunales, Ortuño Navalón, M^a del Carmen Tirant lo Blanch (Valencia)

Prueba electrónica y proceso 2.0: especial referencia al proceso civil, Bueno de Mata, Federico Tirant lo Blanch (Valencia)

HIRIGINTZA

Manual de derecho urbanístico, Fernández, Tomas - Ramón Civitas (Cizur Menor)

BESTEAK (BITARTEKARITZA)

Los sistemas alternativos de resolución de conflictos: la mediación. Sistemas complementarios al proceso. Nuevo enfoque constitucional del derecho a la tutela judicial efectiva, Morales Fernández, Gracia Hispalex (Sevilla)



DERECHO FISCAL

- **Resolución de 11 de septiembre de 2014**, de la Dirección General de la Agencia Estatal de Administración Tributaria, por la que se modifica la de 3 de junio de 2009, sobre **asistencia a los obligados tributarios y ciudadanos en su identificación telemática ante las entidades colaboradoras con ocasión de la tramitación de procedimientos tributarios y, en particular, para el pago de deudas por el sistema de cargo en cuenta o mediante la utilización de tarjetas de crédito o débito**. (BOE 17-9-14).

DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

- **Resolución de 16 de septiembre de 2014**, de la Secretaría de Estado de Empleo, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 5 de septiembre de 2014, por el que se **aprueba el Plan Anual de Política de Empleo para 2014**, según lo establecido en el artículo 4 ter de la Ley 56/2003, de 16 de diciembre, de Empleo. (BOE 24-9-14).

Los servicios (acciones) y programas (medidas) del Plan 2014 que se desarrollen por los Servicios Públicos de Empleo deberán dirigirse al cumplimiento de los cinco objetivos estratégicos siguientes:

- Mejorar la empleabilidad de los jóvenes y poner en marcha el Plan de Implementación de la Garantía Juvenil en España.
- Favorecer la empleabilidad de otros colectivos especialmente afectados por el desempleo: mayores de 55 años, desempleados de larga duración y beneficiarios del PREPARA.
- Mejorar la calidad de la formación profesional para el empleo.
- Reforzar la vinculación de las políticas activas y pasivas de empleo.
- Impulsar el emprendimiento.

Todos ellos se enmarcarán en seis ejes orientación, formación, oportunidades de empleo, igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, emprendimiento y mejora del marco institucional.

OTROS

- **Orden ESS/1571/2014, de 29 de agosto**, por la que se establece el **importe de las tasas por tramita-**

ción de autorizaciones administrativas en relación con la movilidad internacional. (BOE 4-9-14).

- **Real Decreto-ley 11/2014, de 5 de septiembre, de medidas urgentes en materia concursal**. (BOE 9-9-14).

En este Real Decreto-ley se adoptan una serie de medidas para flexibilizar la transmisión del negocio del concursado o de alguna de sus ramas de actividad.

Respecto del convenio concursal:

- *se introducen previsiones relativas a la valoración de las garantías sobre las que recae el privilegio especial.*

- *Se amplía el quorum de la junta de acreedores, atribuyendo derecho de voto a algunos acreedores que hasta ahora no lo tenían y se hace un listado más amplio de personas especialmente vinculadas con el deudor que, por esta razón, tendrán la condición de acreedores subordinados y carecerán en consecuencia de voto en la junta de acreedores.*

- *Se introducen previsiones adicionales respecto a los efectos del convenio.*

- *Se incluyen modificaciones respecto a las votaciones y mayorías en el convenio y a la ampliación de la capacidad de arrastre de los acreedores disidentes en determinadas circunstancias.*

- *Se establece la posibilidad de arrastre de determinados créditos con privilegio especial o general, incluso en la parte cubierta por el valor de la garantía aunque con un doble requisito.*

Adicionalmente, se introducen determinadas especialidades en materia de insolvencia de empresas concesionarias de obras y servicio públicos, o contratistas de las administraciones públicas.

En materia de liquidación, se modifican determinados preceptos de la Ley concursal con el objeto de facilitar el desarrollo de esta fase del procedimiento.

Finalmente, el RD-ley consta de cuatro DA, cuatro DT, una DD y cinco DF.

- **Ley 15/2014, de 16 de septiembre, de racionalización del Sector Público y otras medidas de reforma administrativa**. (BOE 17-9-14).

Entre las modificaciones más importantes introducidas por la presente ley destaca la reordenación de los organismos públicos, reduciendo los mismos, con el fin de mejorar su eficiencia y reducir el gasto público.

En relación con los funcionarios, se amplía en un día los días reconocidos para asuntos particulares y se

introducen cambios para facilitar la movilidad de los empleados públicos.

En lo que se refiere a la firma electrónica en la Administración Pública, se reconoce una única relación de certificados electrónicos que serán reconocidos en todas las Administraciones Públicas. Asimismo, se implanta el Tabón Edictal Único, a través del Boletín Oficial del Estado, donde se publicarán los anuncios relativos a todas las administraciones públicas. La publicación tendrá carácter gratuito y permitirá al ciudadano, mediante el acceso a un único lugar, tener la garantía y seguridad jurídica de conocer todos los anuncios sobre los que debe ser notificado que le puedan afectar, independientemente del órgano administrativo que los realice o de la materia sobre la que versen.

- **Real Decreto 751/2014, de 5 de septiembre**, por el que se **aprueba la Estrategia Española de Activación para el Empleo 2014-2016**. (BOE 23-9-14).

Esta nueva Estrategia se articula en torno a seis ejes (orientación, formación, oportunidades de empleo, igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, emprendimiento y mejora del marco institucional del Sistema Nacional de Empleo) previamente consensuados entre el Servicio Público de Empleo Estatal y las comunidades autónomas.

Además cuenta con objetivos estratégicos y estructurales que cada comunidad priorizara los que considere conveniente, para conseguir el objetivo final y ser eficientes con el gasto que realicen en políticas activas.

Para ello, cada objetivo tendrá un indicador que medirá al final de cada año si se han cumplido los objetivos y que condicionara el reparto de los fondos destinados a las políticas de activación para el empleo, para dar mayor transparencia y anticipación y permitirá a las comunidades autónomas proponer las medidas que consideren más convenientes destinadas a cumplir objetivos predeterminados y a priorizar en función de su importancia, y todo ello dentro de la necesaria gradualidad que debe imperar entre el sistema anterior y el nuevo modelo. Por último, destaca la importancia de la adaptación de los servicios públicos de empleo para dar cumplimiento al compromiso de implantación de la Garantía juvenil, que se articulará en España mediante el Plan nacional de implantación de la garantía juvenil.

ZERGA ZUZENBIDEA

- **2014ko irailaren 11ko Ebazpena**, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren Zuzendaritza Nagusiarena; honen bidez 2009ko ekainaren 3ko ebazpena aldatzen da; horren gaia: **zergapekoei eta herritarrei laguntzea erakunde laguntzaileen aurrean identifikazio telematikoa egiteko, zerga prozedurari eta, bereziki, zorrik ordaintzeari dagokienez** (BOE, 14-9-17).

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ZUZENBIDEA

- **2014ko irailaren 16ko Ebazpena**, Enplegu Estatu Idazkaritzarena; honen bidez Ministroen Kontseiluak 2014ko irailaren 5ean hartutako Erabakia argitaratzen da, 2014 urterako **Enplegu Politikaren Urteko Plana onartzen duena**, abenduaren 16ko 56/2003 Enplegu Legearen 4. artikulua araberak (BOE, 14-9-24).

Los servicios (acciones) y programas (medidas) del Plan 2014 que se desarrollen por los Servicios Públicos de Empleo deberán dirigirse al cumplimiento de los cinco objetivos estratégicos siguientes: · Mejorar la empleabilidad de los jóvenes y poner en marcha el Plan de Implementación de la Garantía Juvenil en España. · Favorecer la empleabilidad de otros colectivos especialmente afectados por el desempleo: mayores de 55 años, desempleados de larga duración y beneficiarios del PREPARA. · Mejorar la calidad de la formación profesional para el empleo. · Reforzar la vinculación de las políticas activas y pasivas de empleo. · Impulsar el emprendimiento.

Todos ellos se enmarcarán en seis ejes orientación, formación, oportunidades de empleo, igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, emprendimiento y mejora del marco institucional.

BESTEAK

- **ESS/1571/2014 Agindua**, **abuztuaren 29koa**, honen bidez **administrazio baimenengatik ordaindu beharreko tasak ezartzen dira, nazioarteko mugikortasunari dagokienez** (BOE, 14-9-4).

- **11/2014 Errege Lege-dekretua**, irailaren 5ekoa, **konkurtsu gaitan presako neurriak ezartzen dituen**a (BOE, 14-9-9).

En este Real Decreto-ley se adoptan una serie de medidas para flexibilizar la transmisión del negocio del concursado o de alguna de sus ramas de actividad.

Respecto del convenio concursal:

- se introducen previsiones relativas a la valoración de las garantías sobre las que recae el privilegio especial.

- Se amplía el quorum de la junta de acreedores, atribuyendo derecho de voto a algunos acreedores que hasta ahora no lo tenían y se hace un listado más amplio de personas especialmente vinculadas con el deudor que, por esta razón, tendrán la condición de acreedores subordinados y carecerán en consecuencia de voto en la junta de acreedores.

- Se introducen previsiones adicionales respecto a los efectos del convenio.

- Se incluyen modificaciones respecto a las votaciones y mayorías en el convenio y a la ampliación de la capacidad de arrastre de los acreedores disidentes en determinadas circunstancias.

- Se establece la posibilidad de arrastre de determinados créditos con privilegio especial o general, incluso en la parte cubierta por el valor de la garantía aunque con un doble requisito.

Adicionalmente, se introducen determinadas especialidades en materia de insolvencia de empresas concesionarias de obras y servicio públicos, o contratistas de las administraciones públicas.

En materia de liquidación, se modifican determinados preceptos de la Ley concursal con el objeto de facilitar el desarrollo de esta fase del procedimiento.

Finalmente, el RD-ley consta de cuatro DA, cuatro DT, una DD y cinco DF.

- **15/2014 Legea**, irailaren 16koa, **sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzkoa** (BOE, 14-9-17).

Entre las modificaciones más importantes introducidas por la presente ley destaca la reordenación de los organismos públicos, reduciendo los mismos, con el fin de mejorar su eficiencia y reducir el gasto público. En relación con los funcionarios, se amplía en un día los días reconocidos para asuntos particulares y se introducen cambios para facilitar la

movilidad de los empleados públicos.

En lo que se refiere a la firma electrónica en la Administración Pública, se reconoce una única relación de certificados electrónicos que serán reconocidos en todas las Administraciones Públicas. Asimismo, se implanta el Tabón Edictal Único, a través del Boletín Oficial del Estado, donde se publicarán los anuncios relativos a todas las administraciones públicas. La publicación tendrá carácter gratuito y permitirá al ciudadano, mediante el acceso a un único lugar, tener la garantía y seguridad jurídica de conocer todos los anuncios sobre los que debe ser notificado que le puedan afectar, independientemente del órgano administrativo que los realice o de la materia sobre la que versen.


- **751/2014 Errege Dekretua**, irailaren 15ekoa, **Enplegua Sustatzeko Espainiako Estrategia 2014-2016 onartzeko dena** (BOE, 14-9-23).

Esta nueva Estrategia se articula en torno a seis ejes (orientación, formación, oportunidades de empleo, igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, emprendimiento y mejora del marco institucional del Sistema Nacional de Empleo) previamente consensuados entre el Servicio Público de Empleo Estatal y las comunidades autónomas.

Además cuenta con objetivos estratégicos y estructurales que cada comunidad priorizara los que considere conveniente, para conseguir el objetivo final y ser eficientes con el gasto que realicen en políticas activas. Para ello, cada objetivo tendrá un indicador que medirá al final de cada año si se han cumplido los objetivos y que condicionara el reparto de los fondos destinados a las políticas de activación para el empleo, para dar mayor transparencia y anticipación y permitirá a las comunidades autónomas proponer las medidas que consideren más convenientes destinadas a cumplir objetivos predeterminados y a priorizar en función de su importancia, y todo ello dentro de la necesaria gradualidad que debe imperar entre el sistema anterior y el nuevo modelo. Por último, destaca la importancia de la adaptación de los servicios públicos de empleo para dar cumplimiento al compromiso de implantación de la Garantía juvenil, que se articulará en España mediante el Plan nacional de implantación de la garantía juvenil.



EL DEVORADOR DE CALABAZAS



Egilea:
Penelope Mortimer

Itzulpena:
Magdalena Palmer

Editorial Impedimenta, 2014
233 or.; 19,95€

“El devorador de calabazas” lana irakurri nuenetik galdera bat behin eta berriro egiten diot nire buruari. Ez dakit nola den posible eleberri hau askoz ezagunagoa ez izatea. Harrituta nago eleberri horri buruz gehiago hitz egiten ez delako, klasiko moduko bat ez delako, behin eta berriro aipatzen ez delako, anglosaxoiek esaten duten moduan “a must-read book” ez delako, nahitaez irakurri beharreko lana. Bai, emakumeek nahitaez irakurri beharreko lana, irakurtzen hasi eta berehala protagonistarekiko enpatia sentituko dutelako eta ez dutelako inoiz ahaztuko. Eta gizonezkoek nahitaez irakurtzekoa, eleberria irakurrita emakumezkoen unibertsoa nolakoa den ikasiko dugulako, indarguneak, beldurrak eta sentikortasuna nolakoak diren. Eta senar-emazteek nahitaez irakurri beharrekoa, kontatzen zaigun istorioan gaztelua oso erraz eror daitekeela ikusten dugu eta. “El devorador de calabazas” hori eta askoz gehiago da. Bere onetik ateratako ama batek, ama gaingituak, seme-alabak bata bestearen atzetik ditu, inguruan duen guztiari ihes egiteko. Istorio horren bidez kontatzen zaigu arrakasta den-dena suntsitzeko gai dela. Itxura atsegin eta dibertigarriarekin, eleberri honek bazter guztietan dauden munstroei buruz hitz egiten digu: engainua, segurtasunik eza, depresioa, etsipena, alkohola, frustrazioa, bakardadea...

Era berean, “El devorador de calabazas” azkenaldian irakurri dudana eleberri entretenigarriene-

tako bat da. Eta entretenigarri esaten dudanean, ez da gaizki ulertu behar. Hitz horrek irakurketa erraza eta denbora-pasa ekartzen baitu gogora. Eta, bai, egia da erraztasun handiz irakurtzen dela, baina pisu handiko gogoetak ditu. Bitxia bada ere, jorratzen dituen gaiak gorabehera, eleberri dibertigarria da. Edo ez asko. Umorea- ren atzean, askotan, atsekabea aurkituko dugu. Agian, zuzenena komedia beltzari buruz hitz egitea litzateke. Eta komedia on guztiak bezala, originala eta freskoa da. Dinamikoa, zikloi baten moduan aurrera egiten du, ziztu bizian.

Eleberri zoragarri honen egilea Penelope Mortimer (Gales, 1918 - Londres, 1981) da, eta bere talentuaren giltzarria idazlearen biografiarekin lotuta dago. Izatez, “El devorador de calabazas”, 1962an idatzitako lana, bere bizitzaren kalkomania da. Sei seme-alaba lau gizonekin, erroman- tzeak idazle eta poetekin, desoreka emozionalak, abusuak, eragindako abortu bat... Bizitza kon- plexua, argi-ilunez bete. Mortimer-i buruz hitz egitea eleberri honi buruz hitz egitea da. Bera da, bizitza eta lana gauza bera dira. Egia esan, bere bizitza 233 orrialde hauetan idatzi zuen. Eta hor- rek lekukotza ordainezina utzi zigun. Ispilu defor- matzailea, inork bere burua islatuta ikusi nahi ez duen horietakoa. Bizitzaren gorabeheren aldeko interesa duen edonork irakurri beharreko ele- berria. Hau da, guztiok irakurri beharrekoa. Oso gomendagarria.

“La juventud vive de la esperanza, la vejez del recuerdo”

George Herbert

HERMANA MUERTE



Egilea:
Thomas Wolfe

Itzulpena:
Juan Sebastián Cárdenas

Editorial Periférica, 2014
94 or.; 14,50€

Agian ezaguna egiten zaizue idazle hau. Izan ere, Thomas Wolfe (Asheville, 1900 - Baltim- ore, 1938) egilearen bi eleberri labor gomen- datu genituen, bere sasoiari. Gogoko ditugu bere literaturaren sakontasuna, eta baliatzen dituen formen lirikotasuna. Hala ere, jorratzen dituen gaiak egin dute ezagun Wolfe. Makina bat dira bizitzan gertaturiko esperientziaren ba- tek markatzen dituen egileak; eta Wolfe dugu horietako bat. Gertaera hori behin eta berriz azaltzen da bere lanetan. Kontrako ahalegina egin arren, beti aipatzen dute esperientzia jakin hura. Asheville-koaren kasuan, hamabi urteko Grover anaiaren galerak erabat traumatizatuta utzi zuen. Nagusitan, zauria oraindik bizi-bizi, oroitzapenetan anaia hura bilatzeari ekin zion. Zehaztasun eta zorrotzotasunez, eleberri bat bai- no gehiagotan aipatu zuen galera hura. “El ángel que nos mira” eleberrian erreferentzia txikia ba- zen ere, gai nagusi bilakatu zuen “El niño perdi- do” eta “Una puerta que nunca encontré” kon- takizun laburretan. Bi eleberri labor horien berri eman genizuen dagoeneko atal honetan, eta esan benetan bikainak direla. Itzalak, oroitzape- nak, hutsik dauden gelak, edota jaberik gabeko jostailuak aipatzen ditu Wolfek beraietan. Ele- berri mingarriak dira, baina baita beharrezkoak ere. Eta izugarri ederrak. Eder bezain aztoratzai- leak. Ahots bakar baten jabe zela erakutsi zigun Wolfek bi eleberri horien bidez. Estilo poetiko

eta suntsikorra. Anaia galdu zuen mutiko baten oroitzapenak gogora ekartzeko bide bakarra.

Wolferen lana berreskuratzeko prozesuarekin jarraituz, Periferica editorialak egile honen bes- te eleberri labor bat argitaratzea erabaki du: “Hermana muerte”. Heriotzaren inguru jorratuz jarraitzen du Wolfek, baina ikuspegi aseptiko- goarekin, oraingo honetan. Galera, herotza, bukaera eta abarrak halako distantzia batetik erakusten dizkigu orain, goitik begiratuta be- zala. Ikusle bilakatzen gaitu idazleak; edo are gehiago, voveurak. Wolfek eskaintzen digun ikuspegi hori ez da batere eroso guretzat. Izan ere, heriotza horien lekuko izatea lizuna da gu- retzat. Nahiago genuke handik igaro ez bagina, ez ikusiarena eginez, espaloia aldatuz.

Lehenengo pertsona erabiltzen du Wolfek, herio- tzarekin izan zituen lehendabiziko lau topaketa horiek kontatzeko. Eta bizipen horiek berarekin berriro bizitzera bultzatzen gaitu. Istripuen ondo- riozko heriotzak, edota berezkoak, New York efer- beszentean. Kamioiak zapalduta hil den saltzaile ibiltari bat, otsaileko hotza gaingitu ezin izan duen kaleko eskalea, eraikin bateko aldamiotik behera erori den langilea, edota Times Squareko metrora bidean doan irlandar baten bat bateko heriotza. Eta hildako gorpuen ondoan, bizitzaren uholdea, hiri zaratzatua, oinezkoak, autoak, salto- kiak, trenak... betiko martxan.



LA ISLA MÍNIMA

Alberto Rodríguez

Ez naiz itzulietan ibiliko. Zaila izango da zinema espainiarrik honen antzeko beste film neurritsurik eskaintzea luzaroan. Bertuteei buruz hitz egin aurretik (eta asko ditu), "baina" bakarra azalduko dut, filmak gehiegi xehatzen dituen lagun "oso zeken" batek esandakoa. Gidoian akats txikiren bat



ikusten da, eta betiko moduan, azken muntaketari egotzi ahal zaio, metrajea gehiegi moztu zen eta. Kritika hauek entzuten ditudanean (batzuetan arrazoia izaten duten), *El sueño eterno* gogora etortzen zait beti. Hori ere film ulertezina da arrazoi berberengatik, baina inork ez du zalantza egiten maisulana

dela esaterakoan. Filmak generoko zinta baterako metraje justua du, intriga hutsa, baina ordu laurden bat gehiagok ez zion kalterik egingo, erakutsitako erritmo oso azkarra kontuan hartuta.

Interpretazio bikainak eta testuinguru ezin hobea –bete-betea asmatzen du ustelkeriei, obskurantismoari, gehiegikeria kriminalak estaltzeko film bat aldi oso ilun batean kokatzean, hau da, diktadura amaitu berritan.

Argazki ederrak. Guadalquivirreko padurek ez diote inolako inbidiarik Missisipiko ur lohitsuiei, New Orleansen (*En el centro de la tormenta*).

Ez da aipagarria elkarriketengatik, justu-justuak baitira, ahulak batzuetan, baina kasu guztietan filmaren xedeari begira daude: informazio justua ematea interesari amaiera arte eusteko.

Ekintzak sinesgarritasun miresgarria du, eguneko eszenetan eta batez ere gauekoetan. Aspaldi ez nuen sentitzen horrelako hotzikararik. Meritu handia du bitarteko gutxi izan arren horrelako bertuteak lortzea; izan ere, lepoa jokatuko nuke ekintza eszenetara bideratutako aurrekontua ez dela filmeko partidari garrantzitsuena. Eszenaratzearen irudimenak efektu bereziak ordeztzen ditu, baina horiek ere, egia esan, ez lukete askorik gehituko artisau izaera duen film honetan.

Film honen gauzarik aipagarriena bilbearen indarra eta desagertze misterioitsu batzuk argitzeko ardura duten bi polizien interpretazio antologikoa da (Raúl Areválo eta Jesús Gutiérrez). Esan beharra dago film hau genero honetako filmik onenen maila berean dagoela.

Filmak trebetasun handiz lotzen ditu bilbe nagusiaren pareko istorio txiki batzuk. Modu berean lotzen zaituzte, baina benetan garrantzitsua denetik ez zaituzte desbideratzen. Ildo horretatik, bereziki interesgarria da protagonisten harreman pertsonalen xehetasunei buruzko guztia: bata poli gogorra da, aspaldikoa, eta bestea garai berrien aurrean sentikortasuna sentitzen duen polizia.

Azken "baina": agian amaiera hobeto itxi zitekeen. Edonola ere, merito handikoa.

LAS DIABÓLICAS

Henry Georges Clouzot, 1955

Europa mailan zinemagintza beltzeko zerrenda onenetan aurki genezakeen pelikula dugu honako hau. Thriller bikaina, ikusle frantziarren gogokoa; argi ikusten da hori filmaren xehetasun guztietan. Honako ediziorako Las diabólicas erreskatatu dut; izan ere, ez da bidezkoa nou-



lle vague deritzona sortu orduko Frantzia egindako pelikula bikain horiek guztiak ahaztuta egoitea. Askoren uztez, izan ere, G o d a r d - e k

cuatrocientos golpes egin aurretik, Pirinioen bestaldean ez zen zinemagintzaren alorrean ezertxo ere egin, eta hori ez da inolaz egia. Hori horrela, Clouzot-en aurreko lana, *El salario del miedo*, inoiz ikusi dudana pelikularik onena dela deritzot.

Literatura maite dutenei, esan, pelikula horren atzean Vertigoren egileak daudela. Bai, bai... Hitchcock-ek zuzendu zuen hura. Benetan irakurgai gomendagarria, zailantzarik gabe.


Esan beharra dago, Frantzia herrialde aurreratua zela une hartan; horregatik, 1955ean egindakoa izan arren, ez da harrizkeoa antzeppen edota elkarriketen kрудeltasuna. Uste hori dute, hain zuzen ere, azken aldirian Hollywoodeko ekoizpenak baino ikusi ez dituztenek.

Istorioren abiapuntua: emazteak eta maitaleak, senar sadikoa akabatzea erabakitzen dute; ez zen batere ohikoa berrogeita hamargarren hamarkadako Frantzia.

Estetikari dagokionez, espresionista da zenbait unetan; *Los ojos sin rostro* pelikula dakarkigu gogora. Hala ere, xehetasun kostunbristek une hartan Frantzia egiten zen zinemagintzarekin ere lotzen dute, Jean Gabin aktoreak protagonizatutako pelikuletari edozeinekin, hain zuzen ere. Irudien plastikotasuna izugarria da (bainuontziko eszena biak), eta tentsioa bere horretan mantentzen da, intentsitatea galdu gabe. Suspentsez beteriko film batek nahitaezkoa duen izu-dosia lortzeko, baditu behar beste elementu: probintziatako pisuetako giroa, edota istorioa zati handi batez kokatzen den barnetegi ilun eta goibela.

Pelikula handietan ez da ezer egoten soberan; beraz, trama kriminalaren prestaketak bezain garrantzitsuak dira gaizkileen ondorengo estura, apurka-apurka guztia bideratzen den arte. Bat bateko aldaketak eragiten dituzten gidoiaren xehetasunek ere, badute euren izatea; ondo pentsatutako eta zaindutako xehetasunak dira. Detektibe-jolasak, generoa maite dutenen gustukoak.

Ezin da gehiago eskatu: ikusleak nahi duena eskaintzen du egileak, lehendabiziko fotogramatik hasita. Inbidiak, ezinikusiak, ase gabeko bizitzak, horren ondorio logiko eta kriminala, gero aladura, eta ikusleak hatsa eutsi ezinik, azken hamabost minutuetan. Ez dugu besterik behar, ezta laurogeita hamargarren hamarkadan Sharon Stonek protagonizatutako bertsoia ere.



CHRISSIE HYNDE – Stockholm



Cd
(Caroline)
11 abesti

Hynde baxu zebilen azkenaldian –bere diskoek ia-ia ez zuten oihartzunik-, eta hala ere, kontzertu errespetagarriak eskaintzen zituen. Hori da eskatu ahal zaion gutxienekoa eztanda punkaren osteko rock britainiarra ulertzeko funtsezko pertsonaiari. Gaur egun, oraindik ere, rock femeninoaren ikono eztabaida ezinetakoa bat da. *Stockholm* bakarka egindako lehenengo Lpa da, aspalditik frankizia moduko zerbait ziren Pretenders horiek gabe. Eta edizioan sustapen ahalegina egin da eta komunikabide ugari ere tartean egon dira, agian jakin dakitelako berriro ere kokatu egin behar dela historiari gutxi erreparatzen dion negozioaren barruan.

Disko handia ez den arren, erakargarria da, batez ere lehenengo zatian, nahiko proposatzen du eta. Hiru abesti aipagarriak dira batez ere: “You or no One”, pop ariketa bat Phil Spector-en soinua nolabait ekarriz, “Dark Sunglasses” sendoa, diskoak gora egiteko erabiltzen duena, eta “Down the wrong Way”, agian, musikari erreparatuz piezari onena, Neil Youngen gitarrak protagonismo berezia duela. Gero diskoak indarra galtzen du,

atsedenaldi asko ditu, eta gaur egun ongiaren eta gaizkiaren gainetik dagoen artistaren karismari esker soilik ateratzen da aurrera. Bizitzaren beste alderdi batzuetan erakusten dituen indarra eta nortasuna aurkitu nahi ditugu, eta musika-ibilbidearen aldirik onenean izan zuen soinua gordina ez aurkitzeak desengainua eragiten du. Are gehiago, azkenean nagusitzen dena tonu nahiko apala, eta nolabait, heldua denean. Horrek, rockari buruz ari garela, ez du funtzionatzen.

Lpa ez da aparteko gauza, baina azkenean funtzionatu egiten du, batez ere disko atsegina bilatzen bada –kantatzean duen dikzioak ez du konparaziorik, beti bezala-. Disko honi esker, abeslariaren antzeko artistek musika-kolektiboaren subkontzientean eragin duten estimuari eutsi egiten zaio. Baina konpainia hobea egiten du autoan etxean baino, eta nire ustez, etorkizunean ez dugu disko horretara askotan joko. Baina ez nintzateke harrituko diskoko temaren bat aterpe abestia izatea azkenean, nonbait entzuten duzunean irribarrea eragiten dizun horietakoa.

SILVIA PÉREZ CRUZ & RAÛL FERNÁNDEZ MIRÓ – Granada



Cd
(Universal)
15 abesti

Agian pixka bat berandu gatozkizue honekin, diskoak dagoeneko pare bat hilabete ditu-eta. Baina barkatu ezinezkoa litzateke aurten Espainia mailan editatu den funtsezko diskoetako bati tarterik ez egitea: bat bateko klasikoa, eta ia kultuzkoa, argitaratu berri den arren. Dagoeneko erabat sendoa dirudien artista biren arteko aliantzaren fruitua dugu honakoa; musikalki mundu desberdinetatik datozen arren, denbora dezente daramate elkarrekin lankidetzan.

Ez da ez rock ez pop estiloko diskoa. Egia esateko, denetarikoa barne hartzen duen diskoa da. Pérez Cruz abeslari bikaina da, arimaz eta sakontasunez betea; bere estilora eramaten ditu makina bat abesti, beste horrenbeste egilerenak; esaterako, Llach, Violeta Parra, Schumann, Piaf, Hoagy Carmichael, Cohen edota Enrique Morente. Abeslariaren aldamenean, Raúl Fernándezen kitarra urduria, tentsioz eta urduritasunez betea, Refree proiektuan bizi ohi dituen ohiko abenturetatik erabat aldentuta. Gitarra elektrikoa izan arren, bigarren maila batean geratzen da, ahots izugarri hari tokia utziz. Generoen fusioa erabatekoa da, irizpidez eta asmoz egindakoa, eta, halakoetan gertatu ohi den arren, inolako gehiegikerietan

erori gabe. Morentek hirurogeita hamargarren hamarkadan Morenten kaleraturiko *Despegando* hartan dago bere tonu orokorra. Abiapuntu hori gaingiduta, baina, toki anitz bezain harrigarrietara iritsi da, estatuko musikari dagokionez. Eta flamenkoa edota abesti tradizionala gorroto dutenek, lasai egon daitezke: halakori badagoen arren, beste gauza bat da honako hau.

Zuzenekoetan sekulako zeresana ematen ari omen dira, entzuleengan halako atsekabea sorrarazi arte. Ez da harriztekoa. Ea laster hemendik ikusteko aukerarik dugun; ea artista bakoitzak bere agendetan tokitxoa aurkitu eta, *Granada* agertoki gehiagotara eramateko paradarik daukaten. Bitartean, diskoa entzuten dudak bakoitzean, behin eta berriz pentsatzen dut pena izugarria dela diskoak Chicho Sánchez Ferlosio-ren “Gallo rojo, gallo negro” abestiaren bertsioa jaso ez izana (bilatu ezazue youtuben, Tot Sants-ek grabaturiko klipa, batez ere); *Record Store Day* editaturiko 10” batean azaltzen da, eta aurkezpen ezin hobea izan daiteke diskoa ezagutzen hasteko. Eta kontuz ibili, musika-aparatuan aurrerantzean bestetik ez entzuteko arriskua dago eta.



LANKIDETZA HITZARMENA BILBOKO ABOKATUEN ELKARGOAREN ETA BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAREN ARTEAN

Abokatuen Elkargoak, Kultura Batzordearen bidez, lankidetzaz lokarriak ezarri ditu gure udalerrian musika sustatu eta garatzeko. Horretarako, bisita gidatuak antolatu ditu Euskalduna Jauregiaren Backstagera, BOSeko arduradunen eskutik bertako historiaren eta gorabeheren berri izan nahi duten elkargokideei zuzenduta. Arduradunek Orkestraren egoitzak dituen bitxikeriei buruzko kontakizun pertsonal eta emotiboa egingo dute. Ondoren, 14/15 denboraldian programatutako kontzertu zozagarri batera joan ahal izango da, taldearentzat erreserbatutako eserlekuetara, ohiko prezioan baino %25 merkeago.

Bisitak 18,30ETIK AURRERA egin ahal izango dira, jarraian adierazten diren kontzertuen programazioarekin bat etorriz. **Bisitetan parte hartu nahi izanez gero, HITZORDUA ESKATU BEHAR DA BAZKUNEKO DEKANOTZAN.** Horretarako, interesdunek ekitaldietarako ezarritako data baino 7 egun lehenago gutxienez abisatu behar duzue. Posta elektronikoko bat bidali behar da decanato@icasv-bilbao.com helbidera, eta sarrerak Euskalduna Jauregian ordaindu eta jasoko dira bisitaren unean.

Bilbao Orkestra Sinfonikoak lehen kontzertua 1922ko martxoaren 8an eskaini zuen Arriaga Antzokian, Armand Marsick-en batutaren zuzendaritzapean. Bizkaiko gizarte zibilak bultzatuta sortu zen, eta gaur egun ere lurralde honekin lotura handia du. Horren erakusgarri da denboraldi sinfonikoan 2.200 pertsona abonatuta daudela.

Orkestra sortu zenetik, zuzendari titullarrak hauek izan dira: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara, Juanjo Mena eta Günter Neuhold.

90 urtetan baino gehiagotan, BOSek eginkizun garrantzitsua egin du Bilbon, Bizkaian eta atzerrian.

BOS. DENBORALDIKO 5. KONTZERTUA

Osteguna, AZAROAK 20, 19,30

B. Martinu: *La bagarre*

E. Elgar: *Introducción y Allegro, para cuarteto de cuerdas y orquesta*

B. Martinu: *Concierto para cuarteto de cuerda y orquesta*

A. Dvorák: *Sinfonía nº 8 en Sol mayor*


Juilliard String Quartet Erik Nielsen, zuzendaria



5. programa

JULLIARD LAUKOTEA ETA DVORÁK-EN 8.A

Juilliard laukote historikoak lanean jarraitzen du, 1946an New Yorkeko eskola ospetsuan eratu zenetik. Denboraldiko programarik interesgarrienetakoa eskainiko digu. Bi obra hari-laukoterako eta orkestrarako, Martinuren kontzertua, *concerto grosso* barrokoaren formak inspiratua, eta Elgar-en pieza ederra izango ditugu lehen zatian; bigarrenean, batzuentzat Dvorák-en sinfoniarik ederrenetakoa. Bohe-miaren espiritu osoa orkestraren soinuaren.



BOS. DENBORALDIKO 8. KONTZERTUA

Osteguna, URTARRILAK 29, 19,30

F. Mendelssohn: *Sinfonía nº 4 en La mayor, op. 90 "Italiana"*
S. Prokofiev: *Concierto para violín y orquesta nº 1 en Re mayor*
G. Enesco: *Rapsodia rumana en La mayor, op. 11 nº1*

Boris Belkin, biolina
Pavel Kogan, zuzendaria



8. programa

BIOLINAREN ESKOLA ERRUSIARRA

XX. mendean, biolinaren eskola errusiarrak aurreko sasoiaren eskola italiarrak, frantziarrak, alemanak eta frantziar-belgikarrak izandako ospearen lekukoa hartu zuen. Tradizio handi horretakoak dira kontzertu hauetara datozen bi artistak, biak Yankelevich maisuaren ikasleak Moskuko Kontserbatorioaren aldirik onenean. Pavel Kogan Leonidas ospetsuaren semearen kasuan, orkestra-zuzendaritzak protagonismoa hartu du biolinaren aurretik. Egin ahal zen konbinaziorik onena Prokofiev-en kontzerturako.

BOS. DENBORALDIKO 14. KONTZERTUA

"Enigmas y leyendas" abonua" - Osteguna, APIRILAK 9, 19,30

R. Wagner: *Tannhäuser, obertura*
F. Liszt: *Concierto para piano y orquesta nº 1*
N. Rimsky-Korsakov: *Sherezade*
Stanislav Khristenko, pianoa
Andrew Gourlay, zuzendaria



14. programa

MUSIKA MILA ETA BAT GAU LANERAKO

Programa hau definitzeko, birtuosismo hitza erabili daiteke. Batetik, Lisztoko kontzertuko bakarlariarentzat, berak bere neurrira idatzitako lanean, piano-jotzaile guztientzat eronka handia izaten dena. Eta, bestetik, orkestrarentzat *Sherezaderen* kasuan, orkestrako bakarlari guztiei maximoa eskatzen baitie, lehenengo biolinaren solo ospetsutik hasita. Eta, aurretik, obertura; horretan, Wagner-ek sinfonikoki laburtzen ditu *Tannhäuser* opera handian garatuko dituen gaiak.

BOS. DENBORALDIKO 17. KONTZERTUA

Ixiera kontzertua - "Enigmas y leyendas" abonua - Osteguna, EKAINAK 4, 19,30

R. Strauss: *Muerte y transfiguración*
R. Strauss: *Cuatro últimas canciones*
L. van Beethoven: *Sinfonía nº 5, en Do menor*
Measha Brueggogsgosman, sopranoa
Carlos Miguel Prieto, zuzendaria



17. programa

GARAI BATEN AMAIERA

Denboraldiko programa handietako bat amaitzeko. Richard Strauss gazteak, *Muerte y transfiguración* berak egindako lehenengoetako poema sinfonikoan, 60 urte geroago bere agurra izango zen *Cuatro últimas canciones* lan ederraren espiritu transzendentea islatzen duela dirudi. Benetako luxua Measha Brueggogsgosmanen ahotsean. Eta azken geldialdia denboraldi honetako Enigmas y Leyendas honetan: Beethoven patuari ate joka.

Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

© UNICEF/WHO2011-1312/Marco Dominio

SI PUDIERAS SALVAR SU VIDA,
¿LO HARÍAS?

HAZTE SOCIO DE UNICEF
HOY PUEDES CONVERTIRTE EN LA PERSONA
MÁS IMPORTANTE PARA ÉL. TE NECESITAMOS.

902 31 41 31 | www.unicef.es/hazte-socio

unicef 



Wolters Kluwer

CONSULTOR JURÍDICO

Descubra todo lo que ofrece el nuevo CONSULTOR JURÍDICO

- > Casi 4.000.000 de sentencias
- > Todas las versiones de legislación
- > Buscador inteligente y preciso
- > Todo el conocimiento práctico que necesita
- > Y todo ello por un precio sin competencia



PRUÉBELO GRATIS EN
www.consultorjuridico.es 

El **CONSULTOR JURÍDICO** es su mejor compañero de despacho



Buscador
inteligente



Todos
los contenidos



Facilidad
de uso



Información
práctica



Donde
lo necesite



Wolters Kluwer

Más información

www.consultorjuridico.es
902 250 500 tel. / clientes@wke.es